

Noaia!!!

www.noaia.com



Asteartean hasiko da
Soinurbil Musika Astea

Martxoaren 16an hasiko da
atez ateko bilketa

Usurbil

LASARTE

autoeskola

☎ 943 36 27 93



➔ Orain 16 urterekin teorikoa atera dezakezu!!!

➔ Azterketa teorikoa zailagoa jarriko dute laster, aprobetxa ezazu orain!!!



Usurbil



GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8 Usurbil



30.URTEURRENA

- Gonzalez Ehorztetxeak 30 urtetan Usurbildarrek guregan izandako konfidantza eskertu nahi du:
- Segururik ez duten familientzat Usurbilgo tanatorioa DOAN izango da, gure ehorztetxearen eskutik.
 - Seguru dutenak eta ZUZENEAN Gonzalez ehorztetxeari deitzen duten familientzat BONIFIKAZIO bat izango dute zerbitzuan.

24 ORDU, BELATOKI GUZTIAK, SEGURU GUZTIAK, ERRAUSKETAK, LEKUALDAKETAK, EGOITZETAN...

943 36 21 63 - 660 388 652 - 608 167 792

Zer erreko litzateke erraustegian?

Tamaina handikoak	%2,23
kautxu/ goma	%0,04
bestelakoak (kablea)	%0,17
etxetresnak	%0,10
bestelakoak (zaborte-gira)	%1,92

Guzti-guztia birziklatu edo berrerabiltzeko gaia!

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEPENA MERPEA
BIZIRIK

Osasun-tekniko batzordea

*Iturria: San Markosko Mankomunitatearen Hiri Hondakinei buruzko Plan Integrala 2002-2016.



MAHUKA

etxebeste 3 • ☎ 943 361 106

Albistea iruditan !!

Agurtzane Solaberrietaren pegatinarekin

Urtarrilaren 23an espetxeratu zuten Agurtzane Solaberrieta, Batasunaren zuzendaritza berriro osatzea eta D3M zein Askatasuna alderdien ilegalizazioari muzin egiten saiatzea egotzita. Martxoaren 1eko hauteskundeetan, hala ere, gogoan izan zuten Agurtzaneren ibilbidea. Bere irudiarekin osatutako pegatinarekin bozkatu zuten hainbat herritarrek eta, aldame-neko irudian ikusiko duzuen moduan, Udarregi ikastolako hautes-ontzi batek Agurtzaneren argazkia zuen itsatsirik. Horretaz aparte, salbuespen egoera salatzeke kartelak ere zabaldu zituzten hautes-mahai inguruetan.



Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarkea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarkea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarkea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publikizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Kortza, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ATEZ ATEKOA, MARTXOAREN 16AN **5. OR.**

UDALBATZA, ATXILOTUEKIN BAT **8. OR.**

EAJ-PNV NAGUSI HAUTESKUNDEETAN **9. OR.**

BADATOR SOINURBIL MUSIKA ASTEA **10. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687.95 12 25

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea
K./nagusia 14. © 943 362 725



AITOR LANDALUZE

Erratzan hegan

Inauterien aitzakia baliatuz, lehengo astean sorgin mozorroa jantzi eta erratza hartuz txango bat ematera sukaldeko leihotik atera nintzen. Erratzetik gauzak desberdin ikusiko ote nituen esperantzarekin. Sorginkeriarekin nahastu eta nahigabe denboran atzera egin nuela uste dut, hamar bat urte edo.

Hortxe nintzen, Usurbilgo zero izartuan hegan, "google earth"-en modura gauzak txorien begiradaz ikusiz, mendi aldera hasieran eta gero plazara jo nuen. Hara Markesaeneko pagoa! Eta hantxe, plaza gainetik pasatzen ari nintzela, pertsona bat ikusi nuen Paris etxearen aurrealdean, petrilaren izkinako harrian gizon potolo bat. Besoak harrigainean, makila ondoan, anorak urdina hotzetik babesteko,... Manolo. Zerbait esan zuen bakarrikzeta batean, baina ez nion ezer ulertu. Bere ahoskatze bereziagatik, edo *elpueblo*ko hizkeragatik edo nire gorrieria... ez dakit zergatik baina ez nion ulertu. Irazu kalean gora, nindoalarik beste itzal bat. Txapela beten azpian gabardina luze bat, Xelebre barruan. Hau ere isilik ez zegoen eta koplaka zihon, hemengo hizkeran gainera, baina berriz ere nire ulermen arazoengatik edo, ez zitzaidan garbia egiten eta

zalantzetan nago. Hitz solte nahasi batzuk bai harrapatu nizkion; birjina, ama, ume... Baina honi ere ez nion ulertu eta inguruan esaten direnak ezin ulertzeak urduritzen nau. Ze ote, ez al dute garbi egiten? Ez al dakit entzuten? Belaunaldi desberdinen hitz erregistroak hain urrutikoak al dira bata bestearekin?

Ni erratza gainean nire zalantzekin nengoela, hirugarren bat ikusi nuen. Tabernak itxiak zeuden arren, batetik atera berria zirudien. Gabardina batekin hau ere, kristal lodiko betaurrekoekin apaindua, ibilera astuna,... hara! "Tiobenito". Hau ere marmarrear; gorria, azukrea, piperrak,... hitz horiek bai baina testuinguruak lagundu zidala uste dut, bestela honi ere ez nion pitorik ulertu. Eskua poltsikotik atera eta tortilla pintxo bat zuen. Hori bai konpost-gailua Tiobenitoren poltsikoa! Hara ez nuen nahi, baina gaiarekin topo egin dut. Agian nire gorrieria da, edo mezu ez argiak, ez dakit baino ez ditut atez-atekoaren aurka daudenen argudioak ulertzen.

Dena den ea inauteri bat edo bi barru berriz ere buelatxo hau ematen dudanean, denen artean zabor produkzioa %80tik gora murriztu dugun.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Txaparreneko zuhaitzak bota egin dituzte

Oraingoa dela aste batzuk, Txaparreneko ondoko Oria ibai bazterrean zeuden zuhaitzak bota egin dituzte. Txikizio hau salatzen dugu, ehun metroko luzerakoa izan delako eta arrazoirik gabe. Uraren legea inda-

rez dagoena erriberako basoak defendatzen ditu eta kasu honetan zalantza dugu udal baimena edo Uraren Zerbitzuko baimenik izan ote duten.

Ekintza honek Oria ibaia kaltetu egiten du. Uda partean eguzkiarekin

alga berdeak ugaritu egiten dira eta ura (itzalik gabe) oxigenorik gabe geratzen da, ondorioz, arrainak hil egiten dira.

Manu Aranburu

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Martxoaren 16an hasiko da atez ateko bilketa

Geroz eta gutxiago falta zela iragartzen joan da Udala, eta azkenik iritsi da eguna; martxoaren 16an martxan jarriko da hondakinak kudeatzeko modua goitik behera aldatuko duen atez ateko bilketa sistema berria. Egunotan, azken prestaketa lanetan murgildua dabil Udala. Atzera kontua hasi da.

Bide luzea egin dute prestakizun lanek, baina iritsi da benetako unea, Udalak zehaztu baitu hondakinak kudeaketa sistema berriaren estreinako data. Martxoaren 16an astelehenerekin hondakinak gaika atez atez biltzen hasiko dira. Bilduko den lehen hondakin zatia organikoa izango da. Kudeaketa modu berriari ekin aurreko bezperatan berriz, beste aldaketa garrantzitsu bat nabarmenduko dute herritarrek. Hilaren 14 eta 15eko asteburuan kenduko dira orain arte kaleetan egon diren eduki ontziak. Beira biltzeko eduki ontziak izan ezik.

SUTEGI, BULEGO NAGUSIA

“Ontzi marroia, gida eta kartela eskuratu ez dituenak Sutegiko informazio bulegoetik pasa daiteke jasotzera”

Aldaketa eguna iritsi artean, prestakizun lanek aurrera jarraitzen dute. Hondakin zatiak egunez egun biltzen jardungo duten langileak kontratatu dira. Egunotan formazio ikastaroa jasotzen ari dira, atez ateko sistema, edota bilketa ibilbidea ezagutzeko. Gogoan izan, bilketa goizez egingo da. Herritarrek 6:30-8:30 artean, etxe atarian utzi beharko dute egun bakoitzari dagokion hondakin zatia. Jarraian hasiko dira bilketa lanak.

Material banaketa eta alkatearen eskutitza

Bizilagun bakoitzaren ontzi marroiak identifikagarri bat izango du. Baita zintzilikagarriek ere. Hartara, nor bere ontzia zer zintzilikagarritan jarri jakin ahal izango du. Ontzi marroietako identifikagarriak,



KONTAINERRAK MARTXOAREN 14KO ASTEBURUAN KENDUKO DITUZTE (BEIRAKOAK IZAN EZIK). MARTXOAREN 16AN HASIKO DA ATEZ ATEKO BILKETA.

eskutitz bidez bidaliko ditu Udalak etxetara. Zintzilikagarrietakoak udal langileek jarriko dituzte. Atez atekoaren hasiera iragartzen duen Alkatearen eskutitz bana ere jasoko dute herritarrek egunotan.

Landa eremukoek Atallun eta Aginagan zabalduko diren bilketa guneetan utzi beharko dute egun bakoitzari dagokion hondakin zatia. Eremu horiek aldi berean atez ateko ordutegiarekin moldatu ezin direnek ere baliatu ahal izango dute, larrialdi gune gisa. Biltokiak jada prest daude.

Oraindik ontzi marroiak, gida, imana eta kartela eskuratu ez dituenak Sutegin kokatua dagoen informazio bulegora hurbil liteke astelehenetik ostiralera, goizez 10:00-13:30 artean edota arratsaldez 16:00-20:00 artean. Doan eskuratuko du materiala.

Autokonpostatze egitasmoan izena eman zuten herritar batzuk jaso dute konpost makina, baina ez guztiek. Hornitzaileek Udalarari jakinarazi diotenez, datorren astean ailegatuko dira falta direnak, goizenez martxoaren 9an, beranduenez jota martxoaren 13an. Komertzioetarako poteak ere datorren astean zehar banatzea aurreikusten du Udalak.

Atzera kontua hasi da. Egun batzuk baino ez dira faltako, atez atekoari ekitzeko.

Zubian, jai egunik ez

Atez ateko bilketa hasiko den aste berean hilaren 19tik 22ra zubia izango dute herritar askok, baina atez ateko bilketa zerbitzua egun horietan ez da etengo. Parte hartze prozesuan zehaztu zen egutegia kontuan hartuta, egun bakoitzari dagokion hondakin zatia bilduko da etxe atarrietan.

Martxoaren 14an kenduko dira kaleko kontenedoreak

Datozen egunetan: ontzi marroietan jartzeko identifikagarriak eskutitz bidez jasoko ditu herritarrek.

Martxoak 9-13: Falta diren konpost makinak eta komertzioetako ontziak banatuko dira.

Martxoak 14-15: kontenedore edo edukiontzia kaleetatik desagertuko dira.

Martxoak 16: atez ateko bilketa hasiko den eguna.

Informazio gehiago:

www.usurbil.net/atezate

Tlf: 900 776 776.

E-posta: atezate@usurbil.net

Informazio bulegoa: Sutegiko erakusketa aretoa.

Parte hartze zabala kiroldegian egin zen batzar irekian

Udalak parte hartze prozesua abian jarri zuenetik atez ateko hondakin bilketa sistema berriari lotutako hemeretzigarren bilkura burutu zen Oiardo Kiroldegian pasa den otsailaren 26an. Gai honetan orain arte egindakoaren nondik norakoak azaldu zituzten udal ordezkariak eta jarraian, zituzten kezka eta zalantzak argitzeko hitza hartu zuten herritarrek. Lasaitasun giroan burutu zen batzarra.

Atez atekoa martxan jartzeko gutxi falta da, azken urratsak ematea baino ez hondakin kudeaketa sistema aldatzeko. “Azken ukituetan gaude egunotan”, adierazi zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak. Bilketa kamioia erosi du Udalak, biltzaileak ere prest daude. Landa eremuko herritarrek hondakin zati bakoitza Atallun (Ingemar lantegi ondoan) edota Aginagan utzi beharko dute. Biltoki hauetako lanak ere amaitzeaz dira. Atez atekoa egingo den eremuan berriz, zintzilikagarriak nonahi ikus ditzakegu eta udal iturrien arabera, jada organikoa jasotzeko ontziak herriko 1.400 sendien artean banatu dira. Bestalde, autokonposta egin dezaketen bostehun etxebizitzetatik lauhun bizilekutan konpostatzeko makinak dituzte.

Informazioa lehenbizi, galderak gero

Datuon berri izan zuten pasa den otsailaren 26an Oiardo Kiroldegira hurbildu ziren herritarrek. Udalak egun batzuk lehenagotik etxez etxe banatu zituzten orrietan duela astebeteko deialdiaren berri eman zen, eta gonbitari erantzunez, herritarrek erruz hurbildu ziren eskubaloiko pisten egokitu zen biltokira.

Duela hilabete batzuk ekin zitzaion



ATEZ ATEKODARI BURUZKO BATZAR IREKIAN JENDE ASKOK HARTU ZUEN PARTE.

herritarrei zuzendutako prozesu parte hartzailea. Helburua argia izan da hasieratik; elkarlana bultzatuz, udal ordezkari eta herritarren artean hondakin kudeaketa berriari forma eta itxura ematea. Pasa den udazkenean auzoz auzo eta sektoreka hainbat bilkura antolatu zituen Udalak.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Konponbidea denon artean eman behar diogu, arazoa soziala baita”

Zenbatzen hasita Kiroldegian duela egun batzuk antolatu zen bilkura hemeretzigarrena omen zen, udal ordezkariak oroitarazi zuten.

Osasuna eta ingurua zaintzea

Bertan ziren, alkateaz gain, Imanol Azpirotz zinegotzi eta San Markoseko Mankomunitateko lehendakari ordea, Jordi Colomer Mankomunitateko teknikaria, Izaskun Txintxurreta nekazaritza eta ingurumeneko udal teknikaria, eta

Xabier Lekuona atez ateko kanpainako komunikazio arduraduna.

Bitan zatitu zuten bilkura; lehenbizi hondakinen kudeaketa alorreko egitasmo berritzaileari lotuta orain arte egindakoaren nondik norakoan berri eman zuten. Herritarrei sortu zaizkien kezka eta zalantza ulergarriak direla aintzakotzat hartuta, asmoa, gaiari ahalik eta argitasun gehiena ematea zela adierazi zen.

Gogorarazi zuten, ez gaude arazo administratibo baten aurrean. “Konponbidea denon artean eman behar diogu, arazoa soziala baita”, adierazi zuen alkateak. Hain zuzen, legegintzaldi hau hasi eta berehala, hondakinen gaia egungo udal gobernu taldeak hasieratik izan duen lehentasuna izan dela aipatu zuten.

Eta argi zuten, zein zen bete beharreko helburua; herritarren osasuna eta ingurumena zaintzea. Ahalik eta birziklatze maila altuena izatea, beste lurralde batzuetan jada abian ziren atez ateko beste esperientziak erduztat hartu eta Usurbilgo ezaugarrietara moldatuta.

Atez atekoarekin birziklatze maila hirukoiztu liteke

Jordi Colomerrek zehaztu zuenez, gutxi gorabehera egun hondakinen %23 inguru birziklatzen da Usurbilen. Gure inguruan eta urrutirago joanda ere batz bestekoa antzekoa da. Emaitza hauekin Mankomunitateko teknikariak aipatzen zuenez, zabortegei edota errauskailuen beharra hor legoke. Egungo sistema aldatzeko bi modu posible daudela ere azaldu zuen; zati organikoarentzat bosgarren edukiontzi bat jartzea gure kaleetan edota atez atekoa. Bi sistemen arteko ezberdintasunak segituan agerian utzi zituen.

Egungo ontzien sistemari organikoarena erantsita, birziklatze-maila %30-40 tarte horretara igo bai, baina birziklatzera bideratu litekeen materialaren purutasuna murriztuko litzateke. "Zenbat eta material nahastu gehiago izan, tratatzeko arazo gehiago egongo da", adierazi zuen Colomerrek. Eta beraz, beharko liratekeen tratamendu plantak egungo sistemak eskatuko lukeen berak lirateke Mankomunitateko teknikariak azaldu zuenez; gaitasun handiko erraustegi edota zabortegeiak.

Atez atekoa martxan jarrita aldiz, egun



EZKERRETARA, JORDI COLOMER, UDALAREN AHOULKULARIA ATEZ ATEKO PROIEKTUAN.

Usurbilen dagoen birziklatze tasa hirukoiztu daiteke, %70etik gorako birziklatze maila lortuz. Eta gainerako erreusa, zati birzikla ezina tratatzeko errauskailua bezalako planten hainbesteko beharrik ez legoke. Teknikariak adierazi zuenez, errauskailuak funtzionatzeko behar beste erregai ez bailuke izango. Gaineratzen zuenez, erraustegiak sortutako erraustsentzat ere aparteko zabortegei bat beharko litzateke. Ondorio hauek Europan han eta hemen jada martxan dauden atez ateko bilketa esperientziatik atera dituzte. Holanda, Italia edota Herrialde Katalanetako hainbat udalerrietatik hain zuzen.

Zorionak eta txaloak

Atez atekoari buruzko informazioa eskaini ostean, herritarrek hartu zuten hitza. Batzuk euren kezkek azaltzera joan ziren Udalak antolatutako hitzordura, besteak zalantzak argitzera. Proposamen eta ekarpenik egin zuenik ere izan zen. Atez atekoari lotutako ohiko galderak, ordutegiaren egokitasunari, biltokiei, zintzilikagarriei edota organikoa biltzeko ontzi marroiei lotutakoak izan ziren.

Ahalik eta gutxien kutsatu

Kezka eta galdera artean, izan zen unea zorion hitzak helarazteko baliatu zuenik ere. Herritar batek Udala zoriondu zuen, aipatu zuenez, hondakinen arazoari sustraiaietatik heltzeko erakutsi zuen ausardiagatik. Baita herritarri zuzendutako eta aurrekaririk ez duen parte hartze prozesua martxan jartzeagatik ere. Ahalik eta gutxien kutsatzeko erronkaren aldeko jarrera erakutsi zuenean, datozen belaunaldiak gogoan hartu zituen. Haiei utz diezaiegun inguruneaz ohartarazi nahi izan zuen. Zeuden zalantzak ulergarriak zitzaizkiola aipatuta, bere hitzetan, "guztiak erantzunda geldituko dira, praktika errealarekin". Atez atekoa martxan jartzen denean hain zuzen. Bilkurara bertaratu zen herritar batek baino gehiagok txalokin erantzun zioten.

Beste behin otsailaren 26ko bilkura, herritarren parte hartze eguna izan zen. Udalak aberats gisa definitu eta aurrerantzean ere, atez atekoa bideratzeko giltzarria izango dena.

Plataformarekin bilera

Kiroldegiko batzarra baino ordu batzuk lehenago, Udala atez ateko sistemaren aurka osatu den plataformako ordezkariekin bildu zen. Udalak jakinarazi duenez, patsadan egin zen bilkura, alde bakoitzak bere iritzia azalduz. Herri kontsulta burutzeko tramitazioarekin hastea ere hitz eman zuen udalak.

Atez atekoa vs bosgarren eduki ontzia

San Markos Mankomunitateko teknikari Jordi Colomerrek Kiroldegian burutu zen bilkuran, abian diren esperientzietan oinarritutako datuekin bi hondakin kudeaketa sistemak alderatu nahi izan zituen, emaitzetan dauden desberdintasunak agerian utziz.

Atez ateko bilketarekin

HERRIA/ HIRIA	BIZTANLE KOPURUA	GAIKAKO BILKETA
Bellusco (Italia)	5.954	%75,80
Vairano (Italia)	5.930	%78,00
Margraten (Holanda)	13.500	%73,33
Tona (H. Katalanak)	7.578	%87,00

Bosgarren edukiontziarekin

HERRIA/ HIRIA	BIZTANLE KOPURUA	GAIKAKO BILKETA
Bartzelona	1.616.000	%31,74
Mataro	119.780	%36,68
Nicheliro (Italia)	45.000	%19,50
Les Borges Blancs (Herrialde Katalanak)	5.734	%23,10
Montgrat	9.778	%25,75

Agurtzane Solaberrieta eta gainerako atxilotuen inguruko mozioa onartu du udalbatzak

Urtarrileko ezker abertzalearen aurkako polizia operazioa irmoki salatu eta zortzi espetxeratuei elkartasuna adierazten dien mozioa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, otsaileko osoko ohiko bilkuran. Elkartasuna modu berezian, Agurtzane Solaberrieta herritarrari eta bere senide zein lagunei. Haietako bat baino gehiago gerturatu zen udalbatza plenora, mozioaren eztabaida gertutik jarraituz.

Otsailaren 24ko ohiko osoko bilkuran aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu zen mozioak argi uzten du egun espetxeratuak dauden ezker abertzaleko zortzi kideei zer delitu leporatzen zaien; ideia batzuk hauteskundeetara aurkeztea. Onartutako testuaren arabera, larriztat eta onartezintzat jotzen da, besteak beste, "hauteskunde prozesu baten oinarri demokratikoak zeharo deuseztatu izana": Euskal Herriko gatazkari konponbide demokratiko bat emateko konpromisoa kriminalizatzen dela ere gaineratzen da.

ESKER ONEKO HITZAK

Agurtzane Solaberrietak egindako ekarpen politikoa eskertu nahi izan zuen udal gobernu taldeak

Horregatik, Euskal Herriak aldaketa politikoa beharrezkoa duela azpimarratzen da, herri bezala dagozkion eskubideak onartuak izan eta proiektu guztiak askatasun osoz gauzatzea ahalbidetuko lukeen marko demokratikoarena hain zuzen.

Bi mezu ere helarazten dira onartutako mozioan. Lehenengoa alderdi politikoei, hausnartzera gonbidatuz. Eta bigarrena espetxeratuei; elkartasuna adierazten zaie. Bereziki Agurtzane Solaberrieta herritarrari eta haren senide eta lagunei.

Eskubideak bermatzeko deia

Azken osoko bilkuran aurkeztutako

testua, udal gobernu taldeak eta Aralarreko zinegotziek babestu zuten. EA-ko udal ordezkariak abstentziora jo zuten. EAJ-PNV-ko zinegotziak berriz testuaren aurka bozkatu zuten. PSE-EE-ko zinegotzia ez zen osoko bilkuran egon.

Udal gobernu taldetik Xabier Mikel Errekondok Agurtzane Solaberrietak egindako ekarpen politikoa eskertu nahi izan zuen. Edozein jarduera politikogatik aplikatu diren ilegalizazioak salatzearekin batera, zilegitasun osoz eginiko lana zela aipatu zuen alkateak.

EArentzat, salagarriak D3M eta Askatasunaren ilegalizazioak

Gehiengo osoz onartu zen mozioaren alde bozkatu ez zuten gainerako udal ordezkariak beren iritzia eman zuten. EA-tik Luis Mari Ormaetxeak salagarritzat jo zituen D3M eta Askatasunako zerrenden ilegalizazioak eta sistema judizialak ukitu politikoz jokatu zuela adierazi zuen. Iritzi politikoa eta indarkeria bi esparru desberdin direla gogoraztearekin batera, herritarrek hauteskundeetan hautua egiteko zuten eskubidea aldarrikatu zuen.

Aralar, mozioarekin bat

Aralarreko zinegotziek bat egin zuten udal gobernu taldetik aurkeztutako mozioarekin. Urtarrila amaierako osoko bilkuran, atxilotetak gertatu eta egun gutxira, jada plazaratu zuten euren iritzia. Gertatutakoa zentzugabekeria politiko eta juridikotzat jo zuten eta elkartasuna adierazi zieten atxilotuei. Bereziki, Agurtzane Solaberrieta herritarrari, baita haren senide eta lagunei ere.

EAJ-PNV, giza eskubide guztien alde

Giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena eta urraketa guztien aurkako salaketa burutu zuen EAJ-PNV-tik Iñaki Illarramendik. Atxilotuen eskubideen errugabetasuna zein haien gainerako eskubideak bermatzea galdegin zuen. Ilegalizazioetarako bidea eman duen



□ OTSAILEKO AZKEN ASTEARTEAN EGIN ZEN BILKURAKO IRUDIA.

legedia eta ETA-ren jarduera jarrera baztertzaitzat definitu eta bata zein bestea soberan daudela gaineratu zuen.

Herritarren elkartasuna

Udal ordezkariak osoko bilkuran aurkeztu eta bozkatu behar zuten mozioaren gaiaren haritik, herritarrak bertaratu ziren udalbatza aretora. "Salbuespen egoerari stop! Euskal Herriak autodeterminazioa" zioten karteekin salatu nahi izan zuten jazotakoa, udal gobernu taldeak testua irakurtzen zuten artean. Hauteskundeak igarota, hitzetatik ekin-tzetara igarotzeko dei egin zuen bertaratu zen herritarretako batek. Sufrimendu handia dagoela esatean denak ados badaude, irtenbide bat aurkitzeko beharra azpimarratu zuen.

Ugartondo eremuko Plan Bereziko Testu Bategina, onartua

Udal ordezkarien gehiengo osoaren aldeko bozkekin, Ugartondo izenarekin ezagutzen den Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 eremuari lotuta dagoen Plan Berezian Testu Bategina onartu du udalbatzak. Erabakia onartzeak zuen premiazkotasuna azpimarratzen da proposamenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko hain zuzen.

EAJ-PNV nagusitu zen hauteskundeetan

EAJ-PNV izan zen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan bozka gehien bildu zituen alderdia; Usurbilen 895 jaso zituen. EA alderdiak, ordea, beherakada nabarmena jasan zuen, baita Usurbilen ere: 144 boto lortu zituen EAK martxoaren 1ean. Duela lau urte, EAJ-PNV eta EA koalizioan aurkeztu ziren eta 1.282 boto atera zituzten elkarrekin.

Baliogabetu arren, D3M bigarren indarra

Alderdien Legearen ondorioz, D3M eta Askatasuna legez kanpo utzi zituzten urtarrilean. Ezker Abertzaleak D3M-ren aldeko botoa eskatu zuen hauteskunde-erarako. Nahiz eta baliogabe izan, 761 herritarren babesa jaso zituen Usurbilen. Duela lau urte, EHAK alderdiak 1.087 boto bildu zituen.

Aralarrek bikoiztu egin ditu botoak

Duela lau urteko datuekin alderatuz, Aralar alderdiak bikoiztu egin ditu botoak. 2005ean 206 boto lortu zituen eta, aurreko igandean, 420 boto.

PSE-EE alderdiak gora,
PP eta EB alderdiak behera
2005eko Eusko Legebiltzarreko hau-



UDARREGI IKASTOLAKO HAUTES-MAHAIETAN, HERRITAR BATZUEK "SALBUESPEN EGOERARI STOP" KARTELAK ERAKUTSI ZITUZTEN.

teskundeetan, PSE-EE alderdiak 378 bozka lortu zituen. Azken hauetan, 477 bozka eskuratu ditu alderdi sozialistak.

PP alderdiak, ordea, EAEn bezala Usurbilen ere behera egin du. 180 boto zituen duela lau urte, 126 honakoan.

Duela lau urteko datuekin alderatuz, EB alderdiak ia botoen erdia galdu ditu. 2005ean 113 boto atera zituen eta azken hauteskunde hauetan, 72.

Abstentzia 2005ean baino handiagoa izan da

M-1eko hauteskundeetan, abstentzian geratu dira balizko 1.713 bozka,

%36,69. 2005eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, abstentzia %29,51 izan zen (1.376 boto).

EHNArekin bozkatzeko arazoak hautes-mahai batean

Ezker Abertzaleak aditzera eman duenez, Xabier Mikel Errekondo alkateak eta beste zenbait herritarrek EHNA aurkeztu zuten bozkatzeko unean baina arazoak izan zituzten bozka emateko. Mahaiko presidentek ez baitzien utzi. Guztira hiru mahai zeuden Udarregi ikastolan eta batean bakarrik jarri zuten eragozpena.

EUSKO LEGEBILTZARRA 2009										USURBIL		
MAHAIA	ERROLDA	BALIO-GABEAK	ZURIAK	ABSTENTZIOA	D3M	EAJ	EA	ARALAR	PSOE	PP	EZKER BATUA	BESTEAK
1A-Kaxkoa	832	155	4	280	154	172	23	98	74	12	11	3
1B-Kaxkoa	795	138	7	278	137	142	36	71	76	18	21	8
2A-Urdaiaga, Santuenea	272	38	1	92	38	50	8	26	36	14	2	5
2B-Urdaiaga, Santuenea	280	22	2	127	22	33	10	12	49	15	8	2
2C-Aginaga	377	68	3	141	64	92	12	36	14	4	4	3
3A-Kalezar, Txikiardi	616	90	1	241	89	127	17	34	74	23	8	1
3B-Kalezar, Txikiardi	618	97	1	235	97	105	18	59	78	17	8	0
3C-Zubieta	354	59	3	134	59	73	5	36	24	13	6	1
4-Kaxkoa	525	101	1	185	101	101	15	48	52	10	4	8
GUZTIRA	4.669	768	23	1.713	761	895	144	420	477	126	72	31

Badator Soinurbil

Martxoaren 10ean hasiko da eta bosgarren edizioa beteko du aurten

Martxoaren 10etik 26ra bertako zein Gipuzkoako beste txokoetatik datozen musika instrumentu jole eta abeslariren bilgunean bihurtuko da herria, Soinurbil egitasmoari esker. Udalak eta Zumartek antolatutako musika astea bosgarren ediziora ailegatu da jada. Aurtengoan, Zumartek inoiz baino ordezkari itzazgoa izango du. Musikariekin batera, abesbatzetako kideek parte hartuko dute antolatu diren ekitaldietan. Haien zuzendari lanetan dabilen Amaia Aldalurrek aurrea begira, Zumartetik kantari harrobi berria badatorrela iragartzen du.

NOAUA! Lehenengoz Soinurbilen parte hartzeak zarete. Zer nolako emanaldia prestatzen ari zarete?

Amaia Aldalur. Oñatiko Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txikikoekin parte hartuko dugu. Haiekin parekatuak gaude, Zumarten, Oñatin bezala, hiru abesbatza ditugu eta. Ekitaldian halere, haiek izango dute protagonismoa.

N. Zumarteko ordezkari itzazgoa zabala izango da bertan?

A. A. Hiru abesbatza ditugu: Kantu Kantarikoak 7-10 urte artekoak dira, 11-13 urte artekoak biltzen dituen eta hirugarrena, helduenek osatutakoa. Soinurbilen bi taldeek parte hartuko dute; Zumarte Txiki eta Zumarte abesbatzek.

N. Noiz hasten dira zuen prestakizun lanak?

A. A. Ikasturtean zehar prestatzen goaz. Hasieran Santa Zeziliko eta gabonetako emanaldiak izan genituen.



ASTEARTEAN HASIKO DA SOINURBIL "BAZEN BEHIN... OPERA" LANAREKIN.

Ordutik Soinurbili begira gaude.

N. Ikasleen ahots eta ikasketa aldatetoket eragin zuzena al dute zuen abesbatzetan?

A. A. 11-13 urte arteko abesbatza neskez osatua dago. Koru txiki eta gazteak, neskez osatuak daude. Adina edota kirolagatik, mutilek ez dute korurako iman berezirik. Ez dute ohi-turarik.

AMAIA ALDALUR, ZUMARTE

"Gazte Abesbatzakoak gustura datoz; eta helduen taldean oso giro polita dago"

N. Historikoki abesbatzen emanaldi guneak, eremu konkretu batzuetan kokatu izan dira. Baina azken urteotan nonahi entzun litezke abesbatzak?

A. A. Duela dezente aldatu zen. Koru indartsu asko dabilta kanpoan. Halere, koru bat barrurako taldea izan ohi da. Emanaldietarako isiltasun giro bat behar du.

N. Zumarteko abesbatzek zer berezitasun dituztela esango zenuke?

A. A. Hiru koruak erabat desberdinak dira. Kantu Kantarikoak Musika Mintzairako ikasleak dira. Derrigorrez parte hartu beharra dute abesbatzan. Gaztetxoek taldeak bestalde, urte dezente daramatzate abesten eta nahi dutelako, gustura datoz. Helduen taldean berriz, oso giro polita dago.

N. Haurrak, helduak... Ahotsa zain-tzeko ohitura handirik ba al dugu?

A. A. Batere ez. Edozein parrandetan taberna batera sartu eta musika altuegi dagoela eta, oihuka hitz egin beharra dugu. Horrek hurrengo egunean dakarren kaltearekin. Abesteko oso txarra da.



Iluspaindegia eta Solarium-a
Ioli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971



Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Soinurbil, ekitaldiz ekitaldi

Martxoak 10, asteartea

18:00 "Bazen behin... Opera" haur opera Sutegin, Opera Divertimento konpainiaren eskutik.

Operaren mundura hurbildu eta oinarrizko irakasgai batzuk jasotzeko aukera ematen duen ordubeteko ikuskizun berezia da. Eskola bat abiapuntu-tzat hartzen da, jarraian lirikaren hastapenetatik gaur egunera arteko denbora bidaian murgiltzeko. Sarrera, doan.

Martxoak 11, asteazkena

18:30 Orioko Danbolin eta Zumarte Musika Eskolako ikasleak Sutegin.

Partaideak: dantzariak, esku-soinu taldea, Zumarteko piano bikotea, Zumarteko trikitilari taldea, biolin taldea, alboka taldea, banda.



ORIOKO DANBOLIN IKASLEAK.

Martxoak 12, osteguna

14:45/15:30 Zumarteko ikasle gazteen kontzertu pedagogikoa Udarregi ikastolako ikasleentzat Sutegin.

Ekitaldiaren asmoa, musika instrumentuak ezagutu, entzun, bereiztu eta ze familiakoak diren jakitea da. 4-7 urte arteko ikasleei zuzendua.



HERNANIKO SAXOFOI TALDEA.

Martxoak 13, ostirala

19:30 Hernaniko "Hernasax" Saxofoi Taldea, Zumarteko saxofoiko ikasleekin batera Sutegin.

Musikan saxoak izan duen presentziaren errebaso historikoa egingo da. Partaideak: hemezortzi saxofoi jole, hiru perkusio jole, piano eta baxu jole bana, Zumarteko saxofoi ikasleekin batera. Musika klasikoa, musika bandak eta jazz doinuak tartekatuko dituzte.

Martxoak 14, larunbata

18:30 Oñatiko "Ganbara Txikitxoak", "Ganbara Txiki" eta Zumarte Txiki eta Zumarte Abesbatzak Sutegin.

Zuzendaria: Aitor Biain. Pianoan: Eli Mendiaraz eta Miren Gurutze Plazaola.

Martxoak 15, igandea

11:30 Kalejira Tolosako Musika Bandarekin.

12:30 Kontzertua frontoian, Tolosako Musika Bandarekin.

Euskal Herriko musika banda

aitzindarietarikoak lehen emanaldia 1828an eskaini zuen, Jose Mateo de Ezpeleta zuzendari zuela. Orduetik mota desberdinetako ekitaldietan parte hartu dute; hala nola, kontzertu didaktikoetan pailazoekin, Oskorrikoekin, diskoak grabatu ditu... Euskal Herrian eta hemendik kanpo hainbat tokitan eskaini izan ditu emanaldiak.



TOLOSAKO MUSIKA BANDA.

Martxoak 26, osteguna

19:00 Usurbilgo Zumarte eta Orioko Danbolin Musika eskolako ikasleak Orioko kultur etxean.

Urtero beste herri bateko musika eskolako ikasleekin egin ohi duten trukaketa emanaldia. Partaideak: Zumarte Gazte Abesbatza, Zumarte folk taldea eta talde instrumentala, gitarra taldeak...

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Udala.

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte.

JOSUE
ARANZAZISTROKI
**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ZUBIALURRENEA4 LISURBIL
i
l
e
p
a
i
n
d
e
g
i
m
i
s
t
o
a
943361951

KALITATERAKO
**EUSKAL
OKELA**

CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO
**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak
Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Mikel Otaegi, 23 urtez azpikoen artean Euskadiko txapeldun iraupen lasterketan

